

Peruko gobernuak eta bere presidente Alan Garciak atzerriko enpresa transnationalei Amazonaseko lur eremu handiak eman nahi dizkie, han bizi diren jatorrizko herrien eskubideak zapalduz.

Perun gertatzen ari dena Latinoamerika osoan bizi den arazo dramatiko bat islatzen du: Lurraren esplotazioa eta ingurumenaren suntsiketa jatorrizko herrien eta biodibertsitatearen kalterako.

Amazonaseko indigenen protesta baketsuak ikusita –milaka urtez bizi izan diren lurrak petrolioren transnationalei emateko kentzen dizkietela ikusita kalera atera dira azken hilabeteetan–, Peruko gobernuak ekainaren 5eko egunsentian natiboak hiltzen erantzun zuen. Armadak genozidioarekin jarraitu du azken egunetan, eta hango herritarren kontra tiroka dabil oraindik. Baguako herria hartuta dago eta ezin da jakin hildakoen kopuru zehatza, baina 70 baino gehiago izan daitezkeela salatu dute bertako herritarrek. Honi guztiari ehunka zauritu eta 50 indigena inguru atxilotuak izan direla gehitu behar zaio.

Egoera dramatikoa bizi arren komunitate indigenek borrokan jarraitzen dute euren eskubideak defendatuz, euren arbasoen lurretatik kanporatuak izan ez daitezen tinko eutsiz.

Gertatu denaren larritasuna ikusita, Euskal Herritik indigena herrien borrokarekin elkartasun osoa aditzera eman nahi dugu, eta, aldi berean, Alan Garciaren gobernu egiten ari den genozidioa salatu. Horregatik honakoa exijitzen dugu:

-Armadak hartutako lekuetatik alde egitea eta atxilotuak izan diren pertsona guztien askatasuna.

-Amazonaseko herrien eskubideak ziurtatzea eta bizi diren lurrak errespetatzea.
-Masakre honetan parte hartu duten pertsonen epaiketa, ahaztu gabe gobernuan genozidioa erabaki duten kideen erantzukizuna.

-Peruko gobernuak herritarren iritzia kontutan hartu gabe sinatu zuen merkatu libreko hitzarmena bertan behera uztea. Ituna legez kanpokoa da, eta soilik atzerriko transnacionalen mesederako egina dago, Peruko herritarrentzat eta ingurumenarentzat kalte handiak sortuz.

